

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bermeoko Udala****Bermeoko Udalak jasandako zibererasoaren adierazpena eta bere ondorioak onartzea.****Xedea**

Bermeoko Udalak jasandako zibererasoaren adierazpena eta bere ondorioak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2023ko uztailaren 6an, Bermeoko Udalak ziberasoa izan zuenaren berri eduki zuen, eta erasoaren norainokoak neurtzeko, hainbat neurri hartu behar izan zituen. Euren artean, kontratu desberdinak bideratu behar izan ziren premiatasunez.

Bigarrena: 2023ko uztailaren 17an udalak erasoaren inguruko salaketa jarri zuen Ertzaintzan (Erreferentzia: 553A2301537).

Hirugarrena: Egoera horren ondorioz, udalaren funtzionamendu burokratikoa guztiz etenda geratu zen 2023ko uztailaren 6tik eta 2023ko uztailaren 21era arte.

Laugarrena: Gaur egun udalaren funtzionamendua ez dago normalizatuta. Beste batzuen artean, udal egoitza elektronikoa ez dago erabilgarri.

Argudioak

Lehenengoa: Egoera anomalo hori dela eta, beharrezko adierazpena egin beharra dago, bere ondorioak onartu eta aplikatu ahal izateko.

Bigarrena: Behin zibererasoaren adierazpena onartuta, bere ondorioz eta intrusio horrekin lotura zuzena duten kontratuen emergentzia aldarrikatu behar da, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 37.1, 39.2.b), 44.4, 120.1 eta 153.6 artikuluekin bat, artikulua horietan jasotako ondorio guztiekin bai kontratu horiek izapidetzan bai euren exekuzioan.

Era berean, zibererasoak eragina izan duen espedienteetan dagozkion neurriak hartu behar dituzte eragindako sailek.

Hirugarrena: Izapidetzen egon diren espediente guztietan epeen luzatzea onartzea Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra onartzen duen 39/2015 Legearen 32.5 artikularekin eta artikulua horretan jasotzen diren ondorioetarako. 32.5 artikularen arabera:

«Cuando como consecuencia de un ciberincidente se hayan visto gravemente afectados los servicios y sistemas utilizados para la tramitación de los procedimientos y el ejercicio de los derechos de los interesados que prevé la normativa vigente, la Administración podrá acordar la ampliación general de plazos de los procedimientos administrativos.»

Laugarrena: Erabakia hartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Entitateen Erregimenaren oinarriak onartzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.m) artikularen arabera, alkateari dagokio, beti be Osoko Bilkurari erabaki horren berri emanda egiten den lehenengoko batzarrean.

Erabakia

Hori guztia dela eta, honakoa erabaki dut:

Lehenengoa: Bermeoko Udalak jasandako zibererasoaren adierazpena onartzea.

Bigarrena: Zibererasoaren ondorioz eta eraso horrekin lotura zuzena duten kontratuen emergentzia aldarrikatzea, aldarrikapen horren ondorio guztiekin.



Hirugarrena: Administrazio prozedura guztien epea handitzea, 12 laneguneko epean, erabaki hau hartzen denetik zenbatzen hasita.

Laugarrena: Derrigorrez elektronikoki erlazionatu beharreko subjektuen kasuan, 12 laneguneko luzapena onartzea, egoitza elektronikoa erabilgarri dagoenean zenbatzen hasita.

Ildo berean, jaso gabeko jakinarazpenen kasuan, egoitza elektronikoa erabilgarri dagoenetik zenbatzen hasiko dira jakinarazpenen ondoriozko epeak.

Bosgarrena: Udaleko sail guztiei erabakiaren berri ematea, zibererasoaren ondorioz eragina izan duen espedienteetan dagozkion neurriak hartzeko agindua emanaz.

Seigarrena: Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta iragarki taulan argitaratzeko agindua ematea Idazkaritza Sailari.

Zazpigarrena: Egoitza elektronikoa erabilgarri dagoenean intzidentziaren berri jasotzea eta epeen handitzea onartu dela jasotzea.

Zortzigarrena: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran Dekretuaren berri ematea.

Bermeon, 2023ko abuztuaren 10ean.—Alkateordea, Xabier Ortuzar Butrón